

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

1766

AGINDUA, 2022ko apirilaren 6koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, zeinaren bidez arautzen eta iragartzen baitira EAEko museo eta bildumetarako dirulaguntzak 2022. urterako.

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 73/2021 Dekretuaren arabera, Kultura Sailburuordetzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzari dagokio EAEko museo eta bildumetarako laguntzen sistema kudeatzea.

Beraz, alde horretatik, Kultura Ondarearen Zuzendaritzak egoki iritzi dio laguntzak emateko bideari ekiteari EAEko museo eta bildumek beren lanean sustatzen eta garatzen dituzten jarduerak laguntzeko, Euskadiko Museoei buruzko abenduaren 1eko 7/2006 Legearen 2.4 artikuluan ezarritakoari jarraikiz. Lege horren azalpenaren arabera, museo-jarduerak gizarte-zerbitzurako kultura-eskaintza gisa garatu behar dira; jarduera biziak eta eraldatzaileak izan behar dira, eta etengabeko eginkizun didaktiko erabakigarria izan behar dute, gizarte-eragileekin eta herritarrekin oro har etengabeko harremanean betiere.

Horregatik guztiagatik, lege-oinarriak mugatzeko tresna bat ezarri beharra dago; batetik, dirulaguntzak emateko prozesuaren objektibotasun-, lehia- eta publikotasun-printzipioak bermatzeko, eta bestetik, behar bezalako mekanismoak egon daitezen, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak funts publikoek xede zuzena dutela ezagutu ahal izateko. Funts horiek, halaber, deialdi honetan ezarritako balioespen-irizpideen arabera esleituko dira, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorretan hartarako jasotako aurrekontu-xedapena muga izanik.

Era berean, agindu honen dirulaguntza-lerroa barne hartuta dago 2021-2024 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoan (PES 2021-2024) eta Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren 2022ko Dirulaguntzen Urteko Planean. Plan hori Kultura eta Hizkuntza Politika sailburuaren 2022ko otsailaren 16ko Aginduaren bidez onetsi zen, 2021-2024 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa aldatu zen.

Hori dena kontuan izanik, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea eta helburua.

1.– Agindu honen xedea da Euskadiko Museo eta Bildumen Erregistroan izen emanda duten museo eta bildumentzako dirulaguntzak arautzea eta haien deialdia egitea; laguntzak 2022. urtean emango dira museo-jarduerak gauzatzeko.

2.– Euskadiko Museoei buruzko abenduaren 1eko 7/2006 Legearen 2.4 artikuluan ezarritako eginkizunak betetzeko jarduerak egiten laguntzea da dirulaguntzen helburua.

3.– Nolanahi ere, jarduerak jarduketa-ildo hauetako batean kokatu beharko dira, zeinen barnean jasotzen baitira dirulaguntzaren xede diren jarduerak:

a) Bilduma osatzen duten funtsak katalogatzea eta dokumentatzea.

– Bilduma museografikoak osatzen dituzten funts material eta ez-materialen inbentarioa, katalogazioa eta digitalizazioa, euskarri digitalean, EMSIME informazio-sistema orokorra erabiliz, hizkuntzaren erabilera ez-sexista eginez eta bi hizkuntza koofizialak erabiliz Interneten argitaratzen diren katalogazio-fitxen argitalpenean. Digitalizazioak barnean hartuko dituzte multimedia-fitxategiak, bereizmen handiko irudiak eta hiru dimentsioko objektuen 3Dko eskaneatzeak, errealitatekoen antzeko irudi digitalak eskaintzen dituztenak; laguntza honen bidez digitalizatutako objektu guztiak publikoarentzat ikusgai jarri beharko dira, EMSIMEn gutxienez. Salbuespen gisa, beste aplikazio informatiko batzuk ere erabili ahal izango dituzte funtsak katalogatzeko, baina arrazoiak emanez egiaztatu beharko dute EMSIME sistema erabiltzerik ez dagoela sistemaren datu-eredua ez delako egokia katalogatu beharreko funts motarako. Lan horren emaitza, gerora, «Euskariana» eta «Europeana» (Europako Kultura Ondarera linean sartzeko ataria) biltzaileetan gehitu ahal izango da.

b) Erakusketa finkoa berritzea eta aldi baterako erakusketak egitea.

– Erakusketa finkoa eguneratzea haren diskurtsoaren edo espografiaren edukiei dagokienez, barne hartuta eduki osagarri hauek garatu eta ekoiztea: ikus-entzunezkoak, audiogidak edo, funtsetara eta erakusketaren edukietara hobeto iristeko, geletan publikoaren eskura ezarritako bestelako dokumentu-baliabideak. Ez da eguneratze gisa hartuko panelak eta beste elementu museografiko batzuk berritzea diseinua edo edukiak aldatu gabe, eta, beraz, ezingo dira jarduera horiek diruz lagundu, salbu erakusketa denentzako irisgarritasuna sustatzeko egokitzea.

– Museoaren lurralde-eremuaren edo gaiaren araberrako aldi baterako erakusketak.

c) Bakoitzaren gaiaren eta jarduketa-eremuaren araberrako jarduera didaktikoak eta kultura zabaltzekoak diseinatu eta eskaintzea.

– Museoaren gai-eremuarekin zerikusia duten jarduera didaktikoak edo jolas- eta kultura-jarduerak.

d) Dituzten gai eta jarduketa-eremuarekin lotutako ezagutza sortzea.

– Haien bildumak osatzen duten ondareari buruzko ikerketa-lanak edo gai-eremuari buruzkoak, horien emaitzak erakusketa-diskurtsora gehitzeko eta museoaren hezkuntza- eta zabalpen-programara txertatzeko helburuarekin. Agindu honen ondoretarako, ez dira diruz lagun daitezkeen ikerketa-lantzat hartuko museoaren titularrak den pertsonak edo erakundeak Euskal Kultura Ondarearen 6/2019 Legearen 63. artikulutik 74.era bitartekoak aplikatuta nahitaez egin behar dituen esku-hartze arkeologikoak.

– Edizio- eta itzulpen-lanak, museoaren bildumei eta gai-eremuari buruzko zientzia- eta dibulgazio-edukiak, formatu digitalean gutxienez, argitaratzeko (katalogoak, monografiak, aldizkako argitalpenak, ikus-entzunezko eta multimediako produktuak).

e) Berrikuntza hobetu eta bultzatzea museoaren kudeaketan eta zabalpen- eta komunikazio-planean.

– Kudeaketa hobetu eta berritzeko agiriak eta azterlanak egitea: Plan estrategikoak, plan zuzentzaileak, irisgarritasun-planak, zerbitzu-gutunak, hartzailei buruzko azterlanak, komunikazio eta marketin kulturalako planak, aurretiazko diagnostikoak egitea eta neurriak planifikatzea emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde eta genero-ikuspegia sartzeko museoaren jardueran, baita irisgarritasun unibertsala eta gizarte inklusioa ere barne-kudeaketan eta museoko jardueren programazioan.

– Museoaren webgunean orriak sortzea eta hura teknikoki hobetzea.

Aipatutako jarduerak jaso ahalko dute dirulaguntza, baldin eta ez badira Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak emandako beste dirulaguntza-programa baten xede, betiere.

Dirulaguntza jaso ahal izango du, halaber, Euskadiko Museoei buruzko 7/2006 Legearen 2.4 artikuluan ezarritako eginkizunak artikuluko honetan adierazitako ildoetako baten esparruan garatzen dituen jarduerak orok, betiere haren museo-izaera egoki justifikatzen badute eskabidearekin batera aurkeztutako proiektuan, artikuluko honen 5. apartatuan adierazitakoak salbuetsita.

4.– Jarraian zehaztutako jardueren ondoriozko gastu eta inbertsioak ez dira inola ere diruz lagunduko, eta agindu honen xedetik kanpo geratzeko dira: eraikin eta instalazio orokor iraunkorrorak erostea, zabaltzea, birgaitzea, hobetzea edo kontserbatzea; funtsak eskuratzeko eta horiek zaharberritzeko esku-hartzeak, erakusketa-proiektuei lotuta daudenean izan ezik; tokiko sustapen turistikoko esku-hartzeak; museoko espazioak hirugarrenei alokatzean oinarritutako jarduerak ekonomikoak; hirugarrenentzako ekitaldiak antolatzea; ostalaritza- eta ostatu-zerbitzuak eskaintzea; eta merchandisingeko produktuak saltzeko jarduerak.

5.– Eskabide bakoitzean, ildo bakar bati lotutako proiektu bakar bat aurkeztuko da. Pertsona edo erakunde bakoitzak bi eskabide aurkeztu ahalko ditu gehienez.

Eskabideen xedea gai komun baten inguruko jarduerak-programa bat izango da, jarduerak nagusi batekin eta beste jarduerak osagarri batzuekin, edo jarduerak bakar bat; edonola ere, proiektuak aurreko paragrafoan zehaztutako jarduketako batean sailkatua egon beharko du.

6.– Deialdi honetako dirulaguntzak jaso ahal izateko, jarduerak 2022. urtean hasi eta amaitu behar dira.

2. artikulua.– Baliabide ekonomikoak.

Aurreko artikuluan aurreikusitako helbururako 1.000.000 euro erabiliko dira.

3. artikulua.– Pertsona onuradun izateko betekizunak.

1.– Agindu honetan araututako dirulaguntzak eskatu ahal izango dituzte agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean Euskadiko Museoen eta Bildumen Erregistroan inskribatuta dauden museoen edo bildumen titular diren pertsona fisiko eta juridikoek, honako hauek baztertuta:

a) Foru-titulartasuneko museoak eta bildumak.

b) Fundazioak, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak haien gobernu-organismoetan parte hartzen badu.

c) Merkataritza-erakundeak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek haien kapitalean partaidetza badu.

d) Helburu bereko dirulaguntza izendunen hartzaile diren museoen eta bildumen erakunde titullarrak, horiek Euskal Autonomia Erkidegoaren 2022. urterako aurrekontuetan esleituta egonik, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailari dagozkion gastu-partidetan.

e) Beren kapital sozialean, fundazio-ondarean edota gobernu-, administrazio- edo Zuzendaritza-organismoetan partaidetza handiena banku-fundazio edo finantza- edo kreditu-erakunde batena duten erakundeak.

2.– Ezin izango dituzte deialdi honen xede diren dirulaguntzak eskuratu Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 eta 3. artikuluan aurreikusitako egoeraren batean dauden pertsonak edo erakundeak; besteak beste, egoera hauetan daudenak:

a) Ez egunean izatea Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.

b) Ez ordainduta izatea dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak.

c) Ez izatea zehapen penalik edo administratiborik dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzeko aukera galtzea eragiten dionik, edo ez izatea horretarako gaitasuna kentzen dion legezko debekurik.

3.– Museoak 50 langile baino gehiago baditu plantillan, erregistratutako berdintasun-plan bat izan beharko du, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eraginkorrerako 3/2007 Lege Organikoan ezarritakoa betez.

4.– Laguntza-eskabidea aurkezten denetik bete beharko dira dirulaguntzen onuradun izateko aurreko apartatuetan adierazitako eskakizunak, eta horiei eutsi beharko zaie harik eta onartutako dirulaguntza likidatzen den arte.

4. artikulua.– Eskakizunak egiaztatzea.

1.– Eskakizunak ofizioz egiaztatuko dira, Administrazioaren esku dauden edo beste administrazio batek egindako dokumentuak kontsultatuta. Administrazioak beretzat gordetzen du ofizioz bildu ezin izan duen dokumentazioa pertsona edo erakunde interesdunari eskatzeko aukera.

Pertsona eskatzaileek egiaztatze automatiko horren aurka daudela adierazi ahal izango dute espresuki, baina, orduan, Ogasuneko eta Gizarte Segurantzako instantzia administratiboek emandako ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte.

Baldin eta interesdunek aurkeztu behar badute dokumentazioa, eta ez badute adierazitako epean aurkezten, ulertuko da ez dituztela betetzen onuradun izateko eskakizunak.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko 2022. urterako aurrekontuetan helburu bererako izendatutako dirulaguntza izendunen onuradun ez izatea automatikoki egiaztatuko du organo kudeatzaileak.

3.– Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketenak betetzen direla automatikoki egiaztatuko du organo kudeatzaileak eskabidea aurkezten denean eta, dagokionean, egin beharreko ordainketen aurretik. Pertsona eskatzaileek egiaztatze automatiko horren aurka daudela adierazi ahal izango dute espresuki. Hori egitekotan, Ogasuneko eta Gizarte Segurantzako instantzia administratiboek emandako ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte.

4.– Museoak 50 langile baino gehiago baditu plantillan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako 3/2007 Lege Organikoan ezarritakoa betez, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Hitzarmenen Erregistroan eta Gordailuan erregistratutako berdintasun-plan bat izan beharko du, edo Euskal Autonomia Erkidegoko Web Orrietako Lan Akordio Kolektiboen Erregistroan (<https://www.euskadi.eus/erregistroa/regcon/web01-a2langiz/eu/>) edo erregistro-egiaztageria aurkeztu beharko du.

5.– Eskabidean jasotako erantzukizunpeko adierazpen bidez egiaztatuko dira gainerako eskakizunak.

5. artikulua.– Dirulaguntza jaso duten jarduerak azpikontratatzea.

1.– Pertsona edo erakunde onuradunak hirugarrenekin azpikontratatu ahal izango du diruz lagundutako jarduera osoa edo zati bat, betiere azpikontratazio horrek diruz lagundutako jardueraren kostua balio erantsirik gabe handitzea ez badakar. Ondore horietarako, azpikontratazioa dagoela ulertuko da erakunde onuradunak hirugarrenekin hitzartzen badu dirulaguntzaren xede den jarduera osorik edo partez gauzatzea. Kontzeptu horretatik kanpo gelditzen dira erakunde onuradunak dirulaguntza jaso duen jarduera bere kontura gauzatu ahal izateko egin behar dituen gastuak.

2.– Alabaina, erakunde onuradunak ezingo du diruz lagundutako jarduera partez gauzatzea honako hauekin hitzartu:

a) Agindu honen 3. artikulua aplikatuz dirulaguntza hauetatik salbuetsita dauden pertsona edo erakundeekin.

b) Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikulua ezarritako debekuren bat duten pertsona edo erakundeekin.

c) Kontratuaren xede den jarduera egiteko beste dirulaguntza batzuk jaso dituzten pertsona edo erakundeekin.

d) Bitartekari edo aholkulari aritzen diren pertsona edo erakundeekin, haien kontratuetan ordainketak eragiketaren kostu totalaren ehuneko gisa definitzen badira; non eta ordainketa hori ez dagoen justifikatuta egindako lanak edo emandako zerbitzuak merkatuan daukan balioaren erreferentziaren arabera.

e) Pertsona edo erakunde onuradunarekin lotutako pertsona edo erakundeekin, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 29.7 artikuluko d) letran adierazitako baldintzak daudenean izan ezik.

f) Deialdi edo programa berean laguntza edo dirulaguntza eskatu, baina betekizunak betetzen ez dituztelako edo behar den balorazioa lortu ez dutelako laguntzarik gabe geratu diren pertsona edo erakundeekin.

3.– Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen testu bategina onartzeko azaroaren 8ko 9/2017 Legean (lege horren bidez Espainiako ordenamendu juridikoan txertatu ziren Europako Parlamentuko eta Kontseiluko 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak) kontratu txikirako ezarritako zenbatekoak gainditzen dituenean diruz lagundu daitezkeen gastuaren zenbatekoak, pertsona edo erakunde onuradunak, zerbitzua edo ondasuna emateko konpromisoa hartu aurretik, pertsona edo enpresa hornitzaile desberdinen hiru eskaintza eskatu beharko ditu gutxienez, salbu eta ezaugarri bereziak izateagatik merkatuan ez badago halako zerbitzurik eskaintzen duen nahikoa erakunde, edo salbu eta gastua dirulaguntza eskatu aurretik egin bada.

Aurkeztutako eskaintzen arteko hautapena (justifikazioan aurkeztuko dituzte horiek), efizientzia- eta ekonomia-irizpideei jarraituz egingo da, eta memoria batean berariaz justifikatu beharko dute proposamen ekonomikoki abantailatsuena hautatzen ez dutenean.

4.– Dena den, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 29. artikuluan xedatutakoa beteko dute.

6. artikulua.– Diruz lagun daitezkeen eta lagundu ezin diren gastuak.

1.– Diruz lagun daitezkeen gastutzat hartuko dira diruz lagundutako jardueraren izaerari zalantzarik gabe erantzuten diotenak, ezinbestekoak direnak, eta deialdi honetan eta emateko ebazpenean edo hark izan ditzakeen aldaketetan ezarritako epean egiten direnak. Inola ere, diruz laguntzeko moduko gastuak eskuratzeko kostua ezin izango da izan merkatuko balioaren gainetikoa. Egindako gastutzat hartuko dira justifikatzeko epea amaitu aurretik egiazki ordaindu direnak.

2.– Zeharkako kostuak diruz lagunduko dira bakarrik, baldin eta erakunde onuradunak diruz lagundutako jarduerari egozten badizkio kostuok oro har onartutako kontabilitate-printzipioei eta araei jarraikiz arrazoiz dagokion partean, eta, edozelan ere, jarduera egin egiten den aldiari bada-gozkio kostu horiek. Eskabidearekin batera aurkezten duten aurreikusitako gastuen aurrekontuan halakotzat jaso eta zenbatuta egon beharko dira horiek, nolnahi ere. Justifikatu ere egin beharko dituzte.

3.– Diruz lagundutako jarduera egiten duten eremuak estetikoki edo funtzionalki egokitzeko lan txikiek eragindako gastu korranteak diruz laguntzeko modukoak izango dira, betiere proiektuan ezinbestekoak direla justifikatzen badute eta eskabidearekin aurkeztutako aurrekontuan adierazita badaude. Diruz lagundu daitekeen gastutzat hartu ahal izango da, halaber, erakusketa-espazioe-tako argiztapena argi hotzeko sistemara egokitzea, funtsak kontserbatzeko edo museografia hobetzeko justifikatuta dagoenean.

4.– Honako gastu hauek, berriz, ez dira diruz lagunduko:

– BEZaren zenbatekoa, berreskuratu edo konpentsatzeko modukoa denean. Horrelakoetan, gastu gisa egotz daitekeen zenbatekoa egiaztagirien zerga-oinarriari dagokiona izango da. Auto-nomoen fakturei dagokienez, diruz lagun daitekeen gastua zerga-oinarria edo guztizkoa izango da, kasuaren arabera, baina, nolnahi ere, PFEZaren atxikipena aplikatu gabe, onuradunak Ogasunari ordaintzean egindako gastua baita.

– Eraikina eta instalazio orokor iraunkorrak handitu, hobetu, eraberritu edo kontserbatzea xedetzat duten ibilgetu materialeko inbertsioak diren gastuak.

– Langile-gastuak, dirulaguntzaren xede den jarduerari zuzenean ordurik egotzi ezean.

5.– Pertsona edo erakunde eskatzaileak aurkeztutako aurrekontuan –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa eskuragarri dagoen eredu normalizatuaren arabera aurkeztuta– artikulua honetan diruz laguntzeko modukoak ez diren gastuak biltzen badira, balioespen-batzordeak desagerrarazi edo kendu egingo ditu, diruz laguntzeko moduko gastuen aurrekontua zenbatekoa den zehazteko; aurrekontu hori izango da dirulaguntzaren zenbatekoa ezartzeko oinarria.

6.– Dena den, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 31. artikuluan xedatutakoa beteko dute.

7. artikulua.– Dirulaguntzen zenbatekoa eta muga.

Diruz lagundutako proiektu bakoitzeko gehieneko dirulaguntza aurkeztutako aurrekontu osoaren % 90 izango da (45.000 euro gehienez). Diruz lagun daiteke gehieneko zenbatekoa baino gehiago eskatuz gero, dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, diruz lagun daitekeen gehieneko mugara doituko da. Pertsona edo erakunde onuradun bakoitzaren diruz lagundutako proiektuen baturaren gehieneko zenbatekoa 90.000 eurokoa izango da.

8. artikulua.– Emateko prozedura.

1.– Deialdi hau lehiaketa bidez ebatziko da. Horretarako, aurkeztutako eskabideak alderatuta emango dira dirulaguntzak, haien arteko hurrenkera finkatzearen 14. artikuluan finkatutako balioespen-irizpideei jarraikiz. Guztira gutxienez 60 puntu lortu dituztenei bakarrik emango zaie laguntza.

2.– Kasu bakoitzean emango den dirulaguntzaren zenbatekoa finkatzeko, deialdiari zuzendutako gehieneko diru kopuru osoaren hainbanaketa egingo du balioespen-batzordeak gutxienez 60 puntu lortu dituzten eskabideen artean. Edonola ere, dirulaguntzaren zenbatekoak ezingo du gainditu eskatutako zenbatekoa edo 7. artikuluan ezarritako muga.

a): Banaketa hori egiteko kontuan hartuko dira lortutako puntuazioa eta eskatutako zenbatekoa, formula hau erabiliz:

$$S_i = \frac{E_i \times P_i}{100}$$

non,

S_i = programa edo jarduera bakoitzari dagokion hasierako diru kopurua.

E_i = kasu bakoitzean eskatutako laguntzaren zenbatekoa.

P_i = batzordeak programa edo jarduera bakoitzari emandako puntuazioa.

b) Baldin eta aurreko apartatuan ezarritako prozeduraren arabera kalkulaturako zenbatekoen baturak aurrekontu-muga gainditzen badu, kasu bakoitzean eman beharreko laguntzaren zenbatekoa formula honen bidez zehaztuko da:

$$S'_i = D \times \frac{S_i}{\sum_{i=1}^{i=n} S_i}$$

non,

S'_i = programa edo jarduera bakoitzari dagokion behin betiko zenbatekoa.

D = dirulaguntzaren xede diren programa edo jardueren artean banatu beharreko zenbatekoa.

S_i = aurreko formularen arabera programa edo jarduera bakoitzari dagokion dirulaguntzaren hasierako zenbatekoa.

9. artikulua.– Eskabideak aurkeztea.

1.– Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindu hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

2.– Pertsona fisiko interesdunek bitarteko elektronikokoak erabiliz nahiz presentzialki eskatu, kontsultatu eta gauzatu ahal izango dituzte prozedura honetako izapide guztiak, hala xedatuta baitago Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikuluan. Pertsona juridikoek, ordea, bitarteko elektronikokoak erabili beharko dituzte, nahitaez, prozedura administratiboaren izapideak egiteko.

3.– Erakundeek elektronikoki aurkeztu beharko dituzte eskabideak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/00375010>.

Eskabideak aurrez aurre ere aurkeztu ahal izango dira Zuzenean zerbitzuan, aldez aurretik helbide honetan hitzordua eskatuta <https://www.euskadi.eus/hitzordua-zuzenean>, EAEko erregistro osagarrietan (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomoen erregistroen sorrera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzko apirilaren 29ko 72/2008 Dekretuan jasotakoetan) edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako organoetan. Eskabide-eredua <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/00375010> egoitza elektronikoa eskuratu ahal izango da.

4.– Pertsona fisikoek, eskabidea egiteko eta dokumentuak aurkezteko aurrez aurreko bidea nahiz elektronikoa erabili, ez dute nahitaez bide hori erabili behar prozeduraren ondorengo izapideetan, eta edozein unetan aldatu ahal izango dute.

Eskabidearen osteko izapideak helbide honetan egingo dira, elektronikoki: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta/>

5.– Eskabideak, erantzukizunpeko adierazpenak eta gainerako ereduak aurrez aurre nahiz elektronikoki nola izapidetu jakiteko xehetasunak egoitza elektronikoa honetan eskura daitezke: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/00375010> Bide hori erabiliz aurkeztutako eskabide elektronikoa baino ez dira onartuko, eta ez dira onartuko erregistro elektronikoa orokorraren inprimakiaren bidez aurkezten direnak.

6.– Erakunde edo pertsona eskatzaileek euskaraz nahiz gaztelaniaz aurkez dezakete eskabidea eta dokumentazioa, aukeran. Halaber, pertsona edo entitate eskatzaileak aukeratzen duen hizkuntza hori erabiliko da prozedura osoan, hala xedatuta baitago Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 5.2.a) eta 6.1 artikuluetan.

7.– Identifikaziorako eta sinadura elektronikorako bitartekoak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa onartutakoak, helbide honetan daude eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>

8.– Hirugarrenen alta elektronikoki izapidetu daiteke (hala egin beharko dute izapideak elektronikoki egitera behartuta daudenek), eta, horretarako, egoitza elektronikoa honetan eskuragarri dagoen zerbitzua erabiliko da: <https://www.euskadi.eus/hirugarrenak>

9.– Izapidetze elektronikoa ordezkari baten bidez ere egin ahal izango da, eta, horretarako, ordezkari hori Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren Ahalordeen Erregistro Elektronikoa inskribatu beharko da, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/ordezkarriak>

10. artikulua.– Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak.

1.– Hauek dira nahitaez aurkeztu beharreko agiriak:

a) Eskabidea. Laguntzen onuradun izateko 3. artikuluan ezarritako baldintzak egiaztatze behar diren erantzukizunpeko adierazpenak jasoko dira inprimaki honetan, baita beste erantzukizunpeko adierazpen bat ere, eskabidean eta aurkeztutako agirietan jasotako datuak egiazkoak direla adierazita. Eskabide-inprimakian erantzukizunpeko adierazpen bidez jasoko da, orobat, pertsona edo erakunde eskatzaileak BEZaren aitortpena egin behar duen edo zerga hori ken edo konpentsa dezakeen.

Pertsona fisikoek aurkeztutako eskabideen kasuan, eskabidean espresuki kontra egiten bazaio nortasun-datuak automatikoki egiaztatze aukerari, eskaeraren titularraren eta/edo, dagokionean, ordezkariaren NANaren fotokopia aurkeztu beharko da nahitaez.

b) Proiektuaren Datuen inprimakia, honako hauek jasota:

– Proiektuaren memoria; agindu honen 14. artikuluko a), b) eta c) apartatuetan adierazitako irizpideei jarraikiz balioetsiko da. Memoriak honako alderdi hauek aipatu beharko ditu diruz laguntzeko eskaera egiten duen jarduerari dagokionez:

Proposatutako jardueraren justifikazio orokorra, haren berariazko helburuak museoaren Urteko Jarduera Planean ezarritako helburu orokorrekin lotuta.

Jardueraren ezaugarrien deskribapen zehatza: formatua, edukia, jardueraren publikoa edo hartzailak, esku hartzen duten giza baliabideak (kopurua, kualifikazioa eta esperientzia, beren langileak edo kanpokoak diren), erabilitako hizkuntzak eta gauzatzeko kronograma (faseak, zereginak eta esku hartzen duten pertsonak), bai eta garrantzitsu deritzeten bestelako alderdi teknikoak ere.

Berrikuntzara edo hobekuntzara bideratuta egotearen justifikazioa, dagokionean aurreikusitako ebaluazio-sistema deskribatuz. Sistema hori espezifikoa edo museoaren jarduera orokor edo globalaren ebaluazio sisteman integratutakoa izan daiteke, eta haren xedea garapenaren emaitzak edo prozesua izan daitezke.

Hala dagokionean, jarduerak kulturaren, hezkuntzaren, zientziaren eta gizartearen arloko beste eragile batzuekin duen lotura-mailaren justifikazioa.

Genero-ikuspegia zeharka txertatzeko proiektuan jasotzen diren ekintzen laburpen zehatza.

Atal guztiak bete beharko dira.

– Jardueraren diru-sarreraren eta gastuen guztizko aurrekontua; orekatua izango da, eta, hala dagokionean, beren langileen gastuak, kanpoko zerbitzuen gastuak, hornidurak eta zeharkako kostuak bereizi beharko ditu. Diru-sarreraren atalean, eskatutako dirulaguntza eta laguntza publiko eta pribatu guztien zenbateko osoa adieraziko dute, baita pertsona edo erakunde eskatzaileak bideratutako baliabide propioa, eta bestelako diru-sarrera mota oro ere, aurreikusitako gastuen zenbateko osoa estali arteko. Proiektuaren xedea jarduera bat baino gehiago barnean dituen programa bada, kostuak jarduera bakoitzeko taldekatuta zehaztuko dituzte, jarduera bakoitzari dagokion guztizko partziala kalkulatu ahal izan dadin. Halaber, zerga-oinarriaren zenbatekoa eta dagokion BEZa ere zehaztuko dituzte, hala dagokionean. Aurrekontuaren edukia agindu honen 14.d) artikuluko irizpideari jarraikiz balioetsiko da.

– Hala dagokionean, erakundeak beste administrazio nahiz erakunde publiko zein pribatuetatik helburu berarekin eskatu edo eskuratu dituen dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo bestelako baliabideak zehatz-mehatz azaltzeko apartatua ere beteko dute.

c) Museoaren jardueraren memoria 2021. urteari dagokion urteko jarduketa-planarekin lotuta. Memoria horretan museoaren jarduketaren helburuak, egindako jarduerak eta emaitzak jasoko dira gutxienez, eta posible denean eragin kulturala, zientifikoa, soziala eta/edo ekonomikoa neurtzen duten adierazle objektiboen bidez deskribatuko dira. Agiri hori erabiliko da 14.e) artikuluan adierazitako irizpidea balioesteko.

2.– Gainera, beste agiri osagarri batzuk aurkeztu ahalko dira, eranskin gisa, Proiektuaren Datuen Inprimakian jasotako informazioa zabaltzeko edo hari buruzko irudiak emateko, Proiektuaren Datuen Inprimakian editaezinak diren objektuak daudenean (irudiak, taulak, kalkulu-orriak, grafikoak, bideoak eta abar). Kasu horretan, Proiektuaren Datuen Inprimakian dagokion erreferentzia egingo zaio eranskinean zabalduko informazioari.

11. artikulua.– Laguntzen kudeaketa.

Kultura Ondarearen Zuzendaritzak kudeatuko ditu deialdi honetan aurreikusten diren dirulaguntzak.

12. artikulua.– Aurkeztutako eskabideetako akatsak zuzentzea.

1.– Eskabidea izapidetzeko onartzeko behar diren agiriak falta direla edo haietan akats formalik dagoela ikusiz gero, edota balioesteko aurkeztutako agirietan akatsak ikusten badira, pertsona interesdunari hamar egun balioduneko epean akatsak zuzentzeko edo behar diren agiriak aurkezteko eskatuko zaio, eta adieraziko zaio horrela egiten ez badu eskabidean atzera egin duela edo izapiderako eskubidea galdu duela joko dutela, ebazpena eman ondoren.

2.– Agindu honi jarraikiz, eskabidea elektronikoki aurkeztu behar duen pertsona eskatzaileraren batek eskabidea aurrez aurre aurkezten badu, eskatuko zaio bitarteko elektronikoak erabiliz aurkeztuta zuzentzeko hori. Horretarako, zuzenketa egin zeneko eguna hartuko da eskabidearen aurkezpen-eguntzat.

13. artikulua.– Balioespen-batzordea.

1.– Eskabideak aurkezteko aldia amaituta, balioespen-batzorde bat eratuko da, eskabideak onartu eta baztertzeko eta laguntza-eskaeren xede diren jarduerak balioesteko. Kide hauek izango ditu batzorde horrek:

– Kultura Ondarearen zuzendaria. Batzordeburua izango da, eta kalitate-botoa izango du, boto-berdinketa gertatuz gero azken erabakia emateko. Postua hutsik dagoenean, zuzendaria azaltzen ez denean edota gaixorik dagoenean, edo legezko beste arrazoiren bat izanez gero, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 19.2 artikuluan eza-rritakoari jarraikiz ordeztuko da.

– Kultura Ondarearen Zuzendaritzako teknikari bat edo bi.

– Agindu honen xede den gaian aditu den kide bat edo bi, Kulturako sailburuordeak izendatuta. Batzordekideak izango dira.

Balioespen-batzordeko idazkari-lanetan Kultura Ondarearen Zuzendaritzako Aholkularitza Juridikoko pertsona bat arituko da, Kultura Sailburuordetzako titularrak izendatuta. Hitza izango du, baina botorik ez. Idazkariaren egitekoa izango da kide anitzeko organo horren jarduketan legezko-tasun formala eta materiala zaintzea, haren jarduketak ziurtatzea eta eraketarako nahiz erabakiak hartzeko prozedura eta arauak errespetatzen direla bermatzea.

Era berean, gai zehatzak aztertzeko balioespen-batzordearen bileretan parte har dezakete bertaratuen gehiengoak onartzen dituen eta jorratu beharreko gaiari buruz jantzita dauden pertsona guztiek, eta hitz egin ere bai, baina botorik ezin izango dute eman.

2.– Balioespen-batzordearen osaera Kulturako sailburuordearen ebazpen baten bidez jakinaraziko da, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da batzordea eratu aurretik.

3.– Balioespen-batzordeko kideak abstenitu egingo dira eta ezetsiak izan daitezke, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. eta 24. artikuluetan eza-rritako kasuetan.

4.– Balioespen-batzordeko kideak izendatzeko orduan, ahaleginak egingo dira gizon eta emakumeen kopurua berdintsua izan dadin, bat etorri Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 23. artikuluan ezarritakoarekin.

5.– Batzordeak dagokion ebazpen-proposamena egingo dio Kulturako sailburuordeari, agindu honen 14. artikuluan ezarritako balioespen-irizpideak oinarri hartuta.

14. artikulua.– Balioespen-irizpideak.

Balioespen-batzordeak aurkezten diren eskabideak ebaluatuko ditu, baldin eta agindu honetan ezarritako baldintza guztiak betetzen badituzte, irizpide hauei jarraikiz:

a) Proiektuaren eduki teknikoaren interesa eta kalitatea, 0 eta 35 puntu bitartean. Osotara balioetsiko da honako azpi-irizpide hauek aintzat hartuta:

– Jardueraren xehetasunen maila eta deskribapenaren eta plangintzaren barne-koherentzia. Gehienez, 25 puntu.

Gutxienez 15 puntu lortzeko, proiektuaren babesean egingo diren jarduera zehatzak adierazi beharko dituzte proiektuek, jarduera guztien helburu orokorrak identifikatuz eta zein publiko zuzentzen diren eta jarduera zehatzak zertan diren aipatuz. 15 puntutik 25era bitarteko puntuazioa emango da jarduera deskribatu eta planifikatzeko barne koherentziaren eta xehetasun mailaren arabera.

– Berrikuntzara eta hobekuntzara bideratuta egotea, plangintzan garapen-prozesua eta jardueraren gauzatzea edo emaitzak ebaluatzeko sistema bat txertatuz. Gehienez, 10 puntu.

b) Jarduerak edo museoaren programazioak kultura, hezkuntza, zientzia eta gizartearen arloko beste eragile batzuekin duen lotura-maila, ingurunearekiko loturak sendotzeko eta haren eragina handitzeko. Gehienez, 10 puntu.

c) Dirulaguntzaren xede den proiektuak emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde zer eduki duen. Gehienez, 5 puntu. Proiektuak baldintza hauetakoren bat bete beharko du, eta puntuazioa modulatu egingo da, gauzatzearen konplexutasunaren eta proposatutako edukiaren irismen potentzialaren arabera:

– Jarduerak berak emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko ekintza positiboa egitea du xede nagusizat.

– Proiektuan generoaren azterketa sartzen da landu beharreko jarduketa edo problematikan.

– Proiektuan egin nahi diren jardueri buruzko berdintasun-diagnostiko bat txertatu da.

– Ikuspegi estereotipatuak desagerraraztea eta genero-rolak apurtzea sustatzen duen eduki teknikoa du proiektuak.

– Erakunde onuradunak konpromisoa hartzen du dirulaguntza justifikatzeko aurkeztu beharreko jarduera-memorian proiektuarekin zerikusia duen pertsoneri buruzko informazioa sexuaren arabera bereizteko.

d) Aurrekontuari dagokionez, xehetasun-maila eta arrazoizkotasuna gastuak jardueraren ezau-garrien arabera banakatzean, eta diru-sarrerari dagokienez, eskatutako dirulaguntza ez diren baliabide propioen eta besteenen proportzioa. Gehienez, 25 puntu.

– Aurrekontuaren xehetasun-maila eta arrazoizkotasuna jardueraren eduki eta irismenarekin lotuta: 0 eta 15 puntu artean. Eskala honen arabera emango dira:

2022ko apirilaren 25a, astelehena

Xehetasun- eta arrazoizkotasun-maila jarduerari dagokionez	Puntuazioa
Handia (kostuak zehatz-mehatz eta sistematikoki banakatu ditu, eta helburuen eta itxarondako emaitzen arabera arrazoitu eta zenbatu ditu –esate baterako, katalogatutako objektu kopurua, jolas- eta hezkuntza-jardueretako pertsona kopurua, dagokion hitzarmenaren arabera langileen gastuak, hornitzaileek aurkeztutako aurrekontuen arabera aurreikusitako unitateko kostuak...–).	10etik gora, 15 puntura arte
Ertaina (xehetasun-maila ez da sistematikoa baina bai nahikoa, ordea, aurreikusitako kostuak helburuen eta itxarondako emaitzen arabera arrazoizkoak direla jotzeko).	6tik gora, 10 puntura arte
Gutxiegi (gastuak modu labur eta orokor batez azalduta daude, aurreikusitako kostuaren arrazoizkotasuna finkatu ahal izateko datu kuantitatibo zehatz gutxi edo batere eman gabe).	0 eta 6 puntua artean (biak barne)

– Eskatutako dirulaguntzaz besteko baliabideekin finantzatzen den jardueraren ehunekoa. Gehienez 10 puntu, eskala honen arabera modu proportzionalean banatuta:

Eskatutako dirulaguntzaz besteko baliabideen ehunekoa	Puntuazioa
% 10 edo gutxiago	0
> % 10-25	1 eta 2,5 puntu artean.
> % 25-45	2,6 eta 4,5 puntu artean.
> % 45-65	4,6 eta 6,5 puntu artean.
> % 65-90	6,6 eta 9 puntu artean.
> % 90	10 puntu

e) Erakundeak azkenaldian izandako ibilbideari dagokionez, museoaren edo bildumaren jarduera-memoriaren bidez balioetsiko da, 2021. urteari dagokion jarduera-planaren arabera; gehienez, 25 puntu.

Puntuazioa modu globalean emango da, dokumentuak ematen duen informazioaren zehaztasun- eta xehetasun-mailari erreparatuz, eta kontuan hartuta bertan jarduketaren emaitzaren ebaluaziorako adierazle objektiboak txertatu diren, eragin kultural, zientifiko, sozial eta ekonomiakoari dagokionez.

f) Museo eta bildumen lortutako puntuazioari 1,05eko koefiziente biderkatzailea aplikatuko zaio Euskadiko Museo eta Bilduma gisa aitortu badira, bat etorri Euskadiko Museoei buruzko 7/2006 Legearen II. kapituluaren eta 132/2011 Dekretuaren III. eta IV. kapituluaren ezarritakoarekin (132/2011 Dekretua, Euskadiko Museo eta Bildumen Erregistroaren antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko araudia onartu eta museo edo bilduma bat «Euskadiko Museoa» edo «Euskadiko Bilduma» dela onartzeko aitorpena arautzen duena).

g) 2ko koefiziente biderkatzailea aplikatuko zaio proiektuek lortutako puntuazioari, baldin eta a) jarduketa-lerroan sartuta badaude («a) Bilduma osatzen duten funtsak katalogatzea eta dokumentatzea») eta barnean hartzen badute bildumaren funtsak katalogatzea eta dokumentatzea.

15. artikulua.– Beste dirulaguntza edo laguntza batzuekiko bateragarritasuna.

Deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzak bateragarriak dira beste erakunde publiko edo pribatuen batek helburu bererako emandako dirulaguntzekin edo beste edozein diru-sarrera edo baliabiderek, baldin eta gehiegizko finantzaketarik ez badago. Izan ere, halakorik gertatuz gero, emandako dirulaguntzaren zenbatekoa murriztu egingo da, dagokion gehieneko mugaraino.

16. artikulua.– Ebazpena.

1.– Deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzei dagokienez, balioespen-batzordeak helarazitako proposamena aztertu ondoren, Kulturako sailburuordeak eman eta jakinaraziko du ebazpena, sei hilabeteko epean gehienez, agindu honek indarra hartzen duen egunetik aurrera. Ebazpenak emandako dirulaguntza guztiak zein ukatutako eta onartu gabeko eskabideak jasoko ditu. Emandako dirulaguntzan jasotako diruz lagun daitekeen gastuaren zenbatekoa txikiagoa bada aurkeztutako aurrekontuaren zenbatekoa baino, diruz laguntzeko modukoak ez direla iritzita zer gastu baztertu diren jasoko da ebazpenean.

2.– Ebazpen hori Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taula elektronikoa argitaratuko da <https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa>, pertsona interesdunei haren berri eman dakien. Pertsona edo erakunde interesdunak eskabidean aurretik emandako gailu elektronikora eta/edo helbide elektronikora oharra bidaliko zaio, ebazpena argitaratu dela jakinarazteko. Abisu hori ez emanagatik ere, jakinarazpena guztiz baliozkoa izango da. Ebazpena bitarteko elektronikoa erabiliz jakinaraziko da, «Nire karpeta» aplikazioaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

Ebazpen hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da. Jakinarazpena bide batetik baino gehiagotatik egiten denez, lehenik egin zaionarena hartuko da jakinarazpen-datatzat.

3.– Ebazpen-epea igarota, pertsona interesdunari ebazpena jakinarazi ez bazaio, eskabidea ezetsi zaiola ulertuko da, hala xedatzen baita Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean.

4.– Erakunde onuradunei dirulaguntza horiek emateko, eta, bidezko denean, ordaintzeko, ezinbestekoa izango da amaiera ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek emanda dituzten izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen arloan hasi eta oraindik izapidetzen ari diren itzulketa- edo zehapen-prozedura guztiei.

17. artikulua.– Onuradunen betebeharrak.

Betebehar hauek izango dituzte deialdi honetan arautzen diren dirulaguntzen pertsona edo erakunde onuradunek:

a) Esleitutako dirulaguntza onartzea. Era horretan, dirulaguntza onartutzat hartuko da pertsona edo erakunde onuradunek horri berariaz uko egiten ez badiote hamar egun balioduneko epean, dirulaguntza ematen duen ebazpena argitaratzen denetik aurrera.

b) Dirulaguntza eman den xede zehatzerako erabiltzea.

c) Ogasun eta Finantza Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari dirulaguntzen fiskalizazio-lanetarako behar duten informazio guztia ematea.

d) Publikoarekiko harreman ahozko zein idatzietan euskararen erabilera bermatzea.

e) Diruz lagundutako jardueran sortutako dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztietan sexismorik gabeko hizkera erabili behar da, emakumeen kontrako bereizkeria edo estereotipo sexistak bultzatzen dituzten irudiak saihestu behar dira, eta berdintasunaren aldeko irudiak sustatu behar dira, presentzia orekatua, aniztasuna, erantzunkidetasuna eta rol eta genero-identitateen pluraltasuna sustatzen dutenak.

f) Erakunde onuradunak konpromisoa hartzen du dirulaguntza justifikatzeko aurkeztu beharreko jarduera-memorian proiektuarekin zerikusia duen pertsoneri buruzko informazioa sexuaren araber bereizteko.

g) Emate-ebazpena argitaratzen den egunetik aurrera, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren babesa aipatu beharko dute, eta haren logotipoa jaso beharko dute diruz lagundutako proiektuak zabaltzeko erabiltzen dituzten material guztietan.

h) Arau hauetan xedatutako obligazioak betetzea kasu guztietan: Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legea Orokorraren 14. eta 46. artikulua, eta Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.2 artikulua.

18. artikulua.– Dirulaguntzak ordaintzea.

1.– Dirulaguntzak zatituta ordainduko dira, zehazki, bi ordainketa eginez. Honela egingo dira ordainketak:

a) Emandako dirulaguntzaren zenbatekoaren % 50, 17.a) artikuluan adierazitako epean, berriaz uko egin ez bazaio.

b) Bigarren ordainketan zenbatekoaren gainerakoa emango zaie, 2023an, onuradunak diruz lagundutako jarduketa eta haren benetako kostua 19. artikuluan adierazitako eran justifikatu ondoren.

2.– Dirulaguntza ezingo da ordaindu baldin eta onuradunak ez baditu ordaindu zerga-betebeharra eta Gizarte Segurantzarekikoak, eta, orobat, dirulaguntzen itzulketa-ebazpen bat dela medio, zorduna bada. Egiaztapena ofizioz eginen da ordainketa bakoitza egin baino lehen, erakunde onuradunak aurkakorik adierazten ez badu. Kasu horretan, hori frogatzen duten ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.

19. artikulua.– Dirulaguntza justifikatzea.

Bat etorri Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 30. artikuluaekin, agindu honetan emandako dirulaguntzen pertsona edo erakunde onuradunek diruz lagundutako jardueren justifikazioko kontua aurkeztu beharko dute dena delako jarduera edo proiektua amaitu ondorengo hiru hilabeteko epean. Nolanahi ere, 2023ko martxoaren 31 izango da justifikazioa aurkezteko epearen azken eguna. Honako dokumentazio hau jaso beharko du justifikazioko kontuak:

a) Dirulaguntza ematean ezarritako baldintzak bete dituztela justifikatzeko jarduketa-memoria, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak zehatz-mehatz azalduta. Memoria horren barruan edo bereiz erantsita, jarduera gauzatu izana edo emaitzak egiaztatzen dituzten irudiak ere aurkeztuko dituzte. Horretarako, egoitza elektronikoa eskuragai dagoen «Justifikazio-memoria» izeneko inprimakia erabili ahal izango dute.

b) Egindako jardueren kostua justifikatzen duen memoria ekonomikoa, honako hauek jasota:

2022ko apirilaren 25a, astelehena

– Jardueraren diru-sarreraren eta gastuen balantze orokorra. Egoitza elektronikoa dagoen «Balantzea» izeneko inprimakia bete edo eredu gisa erabiliko dute. Beste dirulaguntza edo diru-sarrerarik jaso ez badute, dagokion erantzukizunpeko adierazpena egingo dute justifikazioa aurkezteko inprimakian.

– Egindako gastuen zerrenda sailkatua, erakunde edo pertsona hartzekoduna eta dokumentua zehaztuta, baita alderdi hauek ere: zenbatekoa, jaulkipen-data, jarduerari egotzitako gastuaren zenbatekoa (hala dagokionean, zerga-oinarria eta BEZa banakatuko dira) eta, behar denean, ordainketa-data. «Balantzea» izeneko inprimakian jasotako taularen bidez egin ahalko da, edo bereiz aurkeztu, kalkulu-orri batean, betiere datu-eredu berari jarraituta. Gastuen ataleko kontzeptuek bat etorri beharko dute eskabidean aurkeztutako aurrekontuko gastuen ataleko kontzeptuekin.

– Egindako gastuen zerrendan jasotako kostu orokorrak edo zeharkakoak banatzeko irizpideak, halakorik badago.

– Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrera edo dirulaguntza batzuen zerrenda zehatza, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

– Fakturen bidez eta zuzenbide- eta merkataritza-zirkulazio juridikoan froga-balio baliokidea duten edo administrazio-efikazia duten gainerako agirien bidez egiaztatuko dira gastuak, jatorrizkoak edo fotokopia konpultsatuek, edota faktura elektronikoak aurkeztuta.

c) Hala badagokio, pertsona edo erakunde onuradunak, agindu honen 5. artikulua aplikatuz, eskatu behar zituen hiru aurrekontuen kopia, edo horiek ez aurkeztea justifikatzen duen memoria, bat etorri 5. artikuluan horretan ezarritako salbuespenekin, betiere.

d) Jarduerara erakunde onuradunaren langileen iraunkorren gastuak egotziz gero, erakunde onuradunaren erantzukizunpeko adierazpena; horretan, pertsona bakoitzeko, egindako zereginak, jarduerara egotzitako ordu kopurua eta dagokien kostua zehaztuko dituzte. Erakunde onuradunak jarduera egiteko langileak aldi baterako kontratatu baditu, dagokien kontratuaren kopia; bertan jarduera zehatza eta zer eginkizun egiteko kontratatu dituzten azalduko dute.

e) Jarduerari dieta-gastuak egozten bazaizkio (janaria, ostatua edo bidaia), gastu horietan parte hartu duten pertsonen identifikazio-datuak eta proiektuarekin duten lotura azaldu beharko dira memorian.

20. artikulua.– Likidazio-ebazpena.

Dirulaguntza ematerakoan kontuan hartutako baldintzak aldatzen badira –dirulaguntzaren xedea bete bada, betiere– edo beste erakunde publiko zein pribatu batetik bestelako laguntzaren bat jaso bada, dirulaguntzaren zenbatekoa likidatu ahal izango da. Horretarako, Kulturako sailburuordeak dagokion likidazio-ebazpena emango du, eta ebazpen horretan, emandako dirulaguntzen zenbatekoak doituko dira, 698/1991 Dekretuaren 5. artikuluan ezarritakoaren arabera (698/1991 Dekretua, abenduaren 17koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorraren kontura emandako dirulaguntzen berme eta itzulketetarako araubidea ezartzen duena, eta kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileen betekizunak, araubidea eta obligazioak ezartzen dituena).

21. artikulua.– Ez-betetzeak.

1.– Honako hauek izango dira ez-betetzeak:

a) Jasotako dirulaguntzak, osorik zein partez, aurreikusitako jardueretarako erabili beharrean, beste proiektu batzuetarako erabiltzea.

b) Agindu honetan ezarritako betebeharrak edo, hala badagokio, laguntza ematerakoan ezarritako direnak ez betetzea.

c) Dirulaguntzaren likidazio-ebazpenean adierazten den zenbatekoa ez itzultzea, hala badagokio, horretarako ezarritako epean.

d) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluan eta Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 53. artikuluan ezarritakoak.

e) Dirulaguntzen arloko xedapenek ezarritako beste betebeharrak orokorrak ez betetzea.

2.– Horrelako ez-betetzerekin bat gertatuz gero, jasotako zenbateko guztiak edo haien zati bat eta dagozkien berandutze-interesak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharko zaizkio, honako hauetan xedatutakoari jarraikiz, betiere: Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 37.2 artikulua; 1/1997 Legegintzako Dekretua, azaroaren 11koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartu zuena, eta 698/1991 Dekretua, abenduaren 17koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorraren kontura emandako dirulaguntzen bermeen eta itzulketaren jardunbide orokorra arautzen duena eta kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileen baldintzak, jardunbidea eta betebeharrak ezartzen dituenak.

3.– Nolanahi ere, erakunde onuradunaren betearazpen-maila nabarmen hurbiltzen bada erabateko betearazpenera, eta erakunde onuradunak argi eta garbi egiaztatzen badu bere konpromisoak betetzera bideratutako jardueraren bat egin duela, dirulaguntzaren azken zenbatekoa dirulaguntzaren xede den jardueraren ez-betetze mailaren arabera izango da, proportzionaltasun-printzipioa errespetatuta.

Ondorioz, eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 17.3.n) artikuluan xedatutakoaren arabera, jardueraren betearazpenaren balizko ez-betetze partziala mailakatzeko irizpide gisa ezartzen da diruz lagundutako proiektuaren garapen-maila eskatutako aurrekontu osoaren % 65era gutxienez iritsi izana, eta itzuli edo ordaindu beharreko zenbatekoa proportzionalki kalkulatu behar da atalase horretatik aurrera.

Kasu horretan, likidazio-ebazpen bat egingo da, eta azkenean emandako zenbatekoa murriztuko da, benetan gauzatutako proiektu-zatiaren proportzioan.

Salbuespen gisa, lehen ezarritako ehunekoan gauzatzen ez bada proiektua, dirulaguntza kudeatzen duen organoak ez-betetze partzialak daudela baietsi ahal izango du, baldin eta dirulaguntzaren pertsona edo erakunde onuradunak egindako lanek berezitasun ezaugarri objektiboak badituzte eta, berez, diruz lagundutako proiektuaren xedeari eta helburuari balio erantsia ekartzen badiote.

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA

Datu pertsonalak babestearen arloko informazio-klausula.

– Arduraduna: Kultura eta Hizkuntza Politika Saila; Kultura Ondarearen Zuzendaritza. Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz, Araba. Telefono-zenbakia: 945 01 80 00. Webgunea: <http://euskadi.eus>

– Helburua: EAEko museo eta bildumetarako dirulaguntzak ematea 2022. urterako.

2022ko apirilaren 25a, astelehena

– Legitimazioa: Interes publikoan edo tratamenduaren arduradunari emandako ahalmen publikoak erabili bitartean egiteko bat betetzeko behar den tratamendua (Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretua).

– Hartzaileak: Arlo honetan eskumenak dituzten administrazio publikoei eman ahal izango zaizkie datu pertsonalak.

– Eskubideak: Zuk eskubidea duzu zure datuak eskuratu, zuzendu eta ezabatzeko, hala nola tratamendua mugatu zein aurkaratzeko. Ikus informazio gehigarria.

– Informazio gehigarria: Helbide honetan begira dezakezu datu-babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatza. <https://www.euskadi.eus/dbao/00375010>

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honetan aurreikusitakoaz gain, honako hauek ere aplikatuko dira: azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onetsitako Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren VI. titulua; 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa; 39/2015 Legea; urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; eta 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honek administrazio-bideari amaiera ematen dio, eta, haren aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez diezaiokete interesdunek Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari hilabeteko epean, agindua argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, Administrazioarekiko Auzien Salan bi hileko epean, agindua argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko apirilaren 6a.

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua,
BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI.